**PRENTSA OHARRA eta MULTIMEDIA EDUKIA eskuragarri IREKIAn: https://goo.gl/KHKw61**

**Bilbo, 2017ko azaroaren 22a**

# EUSKO JAURLARITZAK ZENBAKIAK JARRI DIZKIO, LEHEN ALDIZ, EUSKADIKO FUNDAZIOEN ETA ONURA PUBLIKOKO ELKARTEEN ZUZENDARITZA-ORGANOETAN DAGOEN DESPAREKOTASUNARI

- **Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburu eta Bozeramaile Josu Erkorekak gaur aurkeztu duen txosten aitzindari batean egiaztatu denez, desparekotasun bikoitza dago irabazi-asmorik gabeko erakundeetan, emakumeen eta gizonen presentziari eta ereduzko gizarte-rolari dagokienez**
- **Emakumeek presentzia handiagoa dute osasunari, laguntzari eta hezkuntzari lotutako erakundeetan, eta gizonak, berriz, nagusi dira banku-arloko eta kirol-arloko elkarte eta fundazioetan**
- **Gainera, aztertutako 544 erakundeak kontuan hartuta, ospe, garrantzi ekonomiko eta tamaina txikiagoko erakundeetan emakumeak gehiago dira, eta gasturik handieneko erakundeetan, berriz, gizonak dira gehiago**

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburu eta Bozeramaile **Josu Erkorekak** Euskadiko fundazioetako berdintasunari buruzko lan-jardunaldia inauguratu du gaur goizean, ***"¿Participan las mujeres en los órganos de decisión de las entidades sin ánimo de lucro?"*** izenekoa (*"Parte hartzen al dute emakumeek irabazi-asmorik gabeko erakundeen erabaki-organoetan?"*). Jardunaldi horretan, ospe handiko hiru txostengile izan ditugu: **Eva Ferreira**, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Ekonomia Aplikatuko katedraduna, **Cristina Escribano**, Gaztela-Mantxako Unibertsitateko (UCLM) Toledoko Zuzenbide eta Gizarte Zientzien Fakultateko Merkataritza Zuzenbideko irakasle titularra, eta **Elena Leiñena**, UPV/EHUko Merkataritza Zuzenbideko irakaslea.

Haiekin batera, Erakunde Harremanetarako Sailburuorde **Peru Bazakok**, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendari **Elixabete Etxanobek** eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak euskal fundazio eta elkarteen sektoreko berdintasun-arloan dituen hiru adituk **Itziar Lizeagak, Amaia Cuestak eta Aitor Matek** hartu dute parte mintegian.

## DESPAREKOTASUNA IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEETAN

Gaurko jardunaldian, Euskadiko **544 fundazio eta onura publikoko elkarteren** kontuen inguruan genero-ikuspegiarekin egindako lehen auditoriaren emaitzak aurkeztu ditu Eusko Jaurlaritzak. Zehazki, txosten horren VI. kapituluan **(*)**, zuzendaritza-batzordeak sexuaren arabera bereizita aurkeztu dituzten **onura publikoko 182 elkarte** (231tik, hau da, guztien % 78,8) eta **362 fundazio** (639tik, hau da, guztien % 57) aztertu dira.

Azterketa aitzindari hori egiteko, hiru aldagai gurutzatu dira: erakundearen helburua, garrantzi ekonomikoa eta gastuaren tamaina. **Hiru ondorio nagusi** egiazta daitezke:

1. **Desparekotasuna dago Euskadiko irabazi-asmorik gabeko erakundeen erabaki-organoetan**: emakume gehiago daude erakunderik demokratiko eta asanblearioenetan, eta gizon gehiago patronatu gehiago dauden fundazioetan. Desparekotasun hori horizontala eta bertikala da. Hau da, emakumeak sektore batzuetan biltzen dira nagusiki, eta, gainera, erabakitzeko boterea handiagoa den heinean, handiagoa da desparekotasuna.

- ✓ Emakume gehiago daude (% 43) onura publikoko elkarteen zuzendaritza-batzordeetan
- ✓ Gizon gehiago daude (% 71) fundazioen erabaki-organoetan.

2. **<u>Genero-arraila dago erakundearen helburuaren arabera:</u>** emakumeak eta gizonak beren ereduzko gizarte-rolei lotutako erakundeetan biltzen dira:

   - ✓ Gizonak ohiko rol maskulinoei lotutako erakundeetan biltzen dira, hala nola banku-erakundeetan, finantza-erakundeetan, kirol-erakundeetan, profesionalen erakundeetan, zientzia-ikerketako erakundeetan eta abar.
   - ✓ Emakumeak rol femenino tradizionalei lotutako erakundeetan biltzen dira, hala nola hirugarren sektoreko erakundeetan edo hezkuntzari, garapenerako lankidetzari, zaintzari, osasunari, laguntzari eta abarri lotutakoetan.

3. **<u>Genero-arraila dago erakundearen garrantzi ekonomikoaren eta tamainaren arabera</u>**: ahalmen ekonomikoa handiagoa den heinean, txikiagoa da emakumeen presentzia.

   - ✓ Emakumeek presentzia txikiagoa dute ekonomikoki handiak diren erakundeetan.
   - ✓ Emakumeek presentzia handiagoa dute erakunde txikietan eta mikroerakundeetan.

## DESPAREKOTASUNA ERAKUNDEAREN HELBURUAREN ARABERA

Aztertutako 544 erakundeetan egiaztatu denez, genero-arrail handia dago genero-rolaren arabera. Azpimarratu beharra dago, adibidez, gizonezkoen kopuru handia banku-fundazioetan (% 73), kirol-fundazioetan (% 74) edo ikerketa-fundazioetan (% 74) Emakumeek, berriz, presentzia handiagoa dute desgaitasunak dituzten pertsonen zaintzari lotutako erakundeetan (% 57) edo ongintza eta laguntzako erakundeetan (% 46), besteak beste.

### ELKARTEAK

**Aztertutako <u>onura publikoko elkarteen</u> gobernu-organoen sexu-banaketa, helburuaren arabera**
**Absolutuak, % eta genero-arraila**

| Kategoria | Guztira | Gizonak | | Emakumeak | | Genero-arraila |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | (Abs.) | (%) | (Abs.) | (%) | (%) |
| Gaixotasunak/desgaitasunak dituzten pertsonei laguntzeko erakundeak | 509 | 220 | % 43 | 289 | % 57 | % 14 |
| Ongintza- eta laguntza-arlokoak eta lan-arlokoak | 432 | 234 | % 54 | 198 | % 46 | -% 8 |
| Eskualde-etxeak | 179 | 140 | % 78 | 39 | % 22 | -% 56 |
| Kultura, gazteria eta kirolaren arlokoak | 219 | 145 | % 66 | 74 | % 34 | -% 32 |
| Beste batzuk | 190 | 130 | % 68 | 60 | % 32 | -% 37 |
| GUZTIRA | 1.529 | 869 | % 57 | 660 | % 43 | -% 14 |

## FUNDAZIOAK

| Aztertutako onura publikoko fundazioen gobernu-organoen sexu-banaketa, helburuaren arabera<br>Absolutuak, % eta genero-arraila | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Sekzioa | Guztira | Gizonak | | Emakumeak | | Genero-arraila |
| | | (Abs.) | (%) | (Abs.) | (%) | |
| Irakaskuntzaren eta ikerketaren arloko erakundeak | 997 | 742 | % 74 | 255 | % 26 | -48 |
| Ongintza- eta laguntza-arlokoak eta lan-arlokoak | 858 | 558 | % 65 | 300 | % 35 | -30 |
| Kultura, gazteria eta kirolaren arlokoak | 736 | 542 | % 74 | 194 | % 26 | -47 |
| Banku-erakundeak | 40 | 29 | % 73 | 11 | % 27 | -46 |
| Gainerakoak | 369 | 269 | % 73 | 100 | % 27 | -46 |
| GUZTIRA | 3.000 | 2.140 | % 71 | 860 | % 29 | -42 |

## DESPAREKOTASUNA ERAKUNDEAREN GARRANTZI EKONOMIKOAREN ARABERA

Aztertutako 544 erakundeetan egiaztatu denez, erakundea ekonomikoki garrantzitsuagoa den heinean handiagoa da genero-arraila. Garrantzitsutzat hartutako erakundeetan, emakumeen presentzia % 28-38ra iristen da.

## ELKARTEAK

| Aztertutako elkarteen zuzendaritza-batzordeen sexu-banaketa, garrantzi ekonomikoaren arabera<br>Absolutuak, % eta genero-arraila | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Garrantzia | Guztira | Gizonak | | Emakumeak | | Genero-arraila |
| | | (Abs.) | (%) | (Abs.) | (%) | |
| Ekonomikoki garrantzitsua | 465 (% 31) | 290 | % 62 | 175 | % 38 | -% 25 |
| Garrantzirik gabekoa | 1064 (% 69) | 579 | % 54 | 485 | % 46 | -% 9 |
| GUZTIRA | 1.529 | 869 | % 57 | 660 | % 43 | -% 14 |

## FUNDAZIOAK

| Aztertutako fundazioen patronatuen sexu-banaketa, garrantzi ekonomikoaren arabera<br>Absolutuak, % eta genero-arraila | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Garrantzia | Guztira | Gizonak | | Emakumeak | | Genero-arraila |
| | | (Abs.) | (%) | (Abs.) | (%) | |
| Ekonomikoki garrantzitsua | 1.440 | 1.042 | % 72 | 398 | % 28 | -44 |
| Garrantzirik gabekoa | 1.548 | 1.089 | % 70 | 459 | % 30 | -40 |
| GUZTIRA | 2.988 | 2.131 | % 71 | 857 | % 29 | -42 |

## DESPAREKOTASUNA ERAKUNDEAREN GASTUAREN TAMAINAREN ARABERA

Aztertutako 544 erakundeetan egiaztatu denez, genero-desberdintasuna handia da, halaber, erakundeen gastuaren tamaina kontuan hartzen badugu. Mikroerakundeetan, erakunde txikietan eta ertainetan, emakumeak dira gehiago, eta erakunde handietan eta oso handietan, berriz, gizonak. Genero-arraila handiagoa da erakundearen gastua handiagoa den heinean.

## ELKARTEAK

| Aztertutako onura publikoko elkarteen zuzendaritza-batzordeen sexu-banaketa, erakundearen tamainaren arabera<br>Absolutuak eta % | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Tamaina | Guztira | Gizonak | | Emakumeak | | Genero-arraila |
| | | (Abs.) | (%) | (Abs.) | (%) | |
| Mikroerakundeak | 759 | 414 | % 55 | 345 | % 45 | % 9 |
| Txikiak | 317 | 172 | % 54 | 145 | % 46 | % 9 |
| Ertainak | 345 | 224 | % 65 | 121 | % 35 | % 30 |
| Handiak | 94 | 52 | % 55 | 42 | % 45 | % 11 |
| Oso handiak | 14 | 7 | % 50 | 7 | % 50 | % 0 |
| GUZTIRA | 1.529 | 869 | % 57 | 660 | % 43 | % 14 |

## FUNDAZIOAK

| Aztertutako <u>fundazioen</u> patronatuen sexu-banaketa, erakundearen tamainaren arabera<br>Absolutuak, % eta genero-arraila | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Tamaina | Guztira | Gizonak | | Emakumeak | | Genero-arraila |
| | | (Abs.) | (%) | (Abs.) | (%) | |
| Mikroerakundeak | 1146 | 801 | % 70 | 345 | % 30 | -40 |
| Txikiak | 459 | 311 | % 68 | 148 | % 32 | -36 |
| Ertainak | 840 | 599 | % 71 | 241 | % 29 | -42 |
| Handiak | 426 | 325 | % 76 | 101 | % 24 | -52 |
| Oso handiak | 129 | 104 | % 81 | 25 | % 19 | -62 |
| GUZTIRA | 3.000 | 2.140 | % 71 | 860 | % 29 | -42 |

## HIRU TXOSTENGILE OSPETSU

- ✓ **Eva Ferreira**: UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Ekonomia Aplikatuko katedraduna. Unibertsitate horretako Akademia Antolakuntzako errektoreordea izan zen 2004-2008ko aldian, eta bertako idazkari nagusia 2009-2013ko aldian. Gaur egun, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako zuzendaria da.

- ✓ **Cristina Escribano**: Gaztela-Mantxako Unibertsitateko (UCLM) Toledoko Zuzenbide eta Gizarte Zientzien Fakultateko Merkataritza Zuzenbideko irakasle titularra. Zuzenbideko doktorea da Madrilgo Complutense Unibertsitatean, eta Fakultate horretako *Emakume eta Zientzia Batzordeko* presidentea.

- ✓ **Elena Leiñena**: Euskal Herriko Unibertsitateko Merkataritza Zuzenbideko irakaslea. Ekonomia eta Enpresa Zientzietako lizentziaduna da UPV/EHUn, Zuzenbideko lizentziaduna UPV/EHUn, eta doktorea Bartzelonako Unibertsitatean.

***(*) Onura publikoko elkarteek eta fundazioek 2014ko ekitaldian aurkeztutako kontuen auditoriari buruzko 2015eko txostenaren VI. kapitulua***

**NOTA DE PRENSA y CONTENIDO MULTIMEDIA disponible en IREKIA: https://goo.gl/8Mjq6J**

**Bilbao, 22 de noviembre de 2017**

# EL GOBIERNO VASCO PONE CIFRAS, POR PRIMERA VEZ, A LA DESIGUALDAD EN LOS ÓRGANOS DE DIRECCIÓN DE LAS FUNDACIONES Y ASOCIACIONES DE UTILIDAD PÚBLICA DE EUSKADI

- **Un informe pionero, presentado hoy por el Portavoz y Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, Josu Erkoreka, constata que hay una doble desigualdad en las entidades sin ánimo de lucro en cuanto a presencia y rol social tipo de mujeres y hombres**
- **Mientras que las mujeres tienen más presencia en las entidades dedicadas a la salud, asistencia y educación, los hombres copan las asociaciones y fundaciones bancarias y deportivas**
- **Además, en las 544 entidades analizadas hay más mujeres en las consideradas de menos relevancia económica y menor tamaño frente a una presencia masculinizada en las de mayor gasto**

El Portavoz y Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, **Josu Erkoreka**, ha inaugurado, esta mañana, la jornada de trabajo sobre igualdad en las fundaciones de Euskadi titulada ***"¿Participan las mujeres en los órganos de decisión de las entidades sin ánimo de lucro?"***. En ella, han participado tres ponentes de reconocido prestigio, **Eva Ferreira**, Catedrática de Economía Aplicada de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales de la UPV/EHU; **Cristina Escribano**, profesora Titular de Derecho Mercantil de la Facultad de Ciencias Jurídicas y Sociales de Toledo de la Universidad de Castilla la Mancha-UCLM; y **Elena Leiñena**, profesora de Derecho Mercantil de la UPV/EHU.

Junto a ellas, han tomado parte en este seminario el Viceconsejero de Relaciones Institucionales, **Peru Bazako**, la Directora de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos, **Elixabete Etxanobe** y tres personas expertas en materia de igualdad en el sector fundacional y asociativo vasco del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, **Itziar Lizeaga, Amaia Cuesta y Aitor Mate.**

## DESIGUALDAD EN LAS ENTIDADES SIN ÁNIMO DE LUCRO

En la jornada de hoy, el Gobierno Vasco ha presentado los resultados de la primera auditoría realizada con perspetiva de género a las cuentas de las **544 fundaciones y asociaciones de utilidad pública** de Euskadi. En concreto, el capítulo VI **(*)** de este informe ha analizado las **182 asociaciones de utilidad pública** (de 231, el 78,8% del total) y **362 fundaciones** (de 639, el 57% del total) que han presentado sus juntas directivas desagregadas por sexos.

En este análisis pionero se ha realizado cruzando tres variables: finalidad de la entidad, relevancia económica y tamaño del gasto. Se constatan **tres principales conclusiones**:

1. **Hay desigualdad en los órganos de decisión de las entidades sin ánimo de lucro de Euskadi**: hay más mujeres en las entidades más democráticas y asamblearias, y en cambio, más hombres en las fundaciones en las que hay más patronatos. Esta desigualdad es tanto horizontal como vertical. Esto es, las mujeres se concentran más en unos sectores que en otros, pero además, en la medida que aumenta el poder de decisión, aumenta la disigualdad.

   - ✓ Hay más mujeres, el 43%, en las juntas directivas de las asociaciones de utilidad pública
   - ✓ Hay más hombres, el 71%, en los órganos de decisión de las fundaciones.

2. **<u>Hay brecha de género por finalidad de la entidad:</u>** mujeres y hombres se concentran en entidades según sus roles sociales tipo:

   - ✓ Los hombres se concentran en entidades de roles masculinos típicos como bancarias, financieras, deportivas, profesionales, de investigación científica etc.
   - ✓ Las mujeres se concentran en entidades de roles femeninos tradicionales como el tercer sector, educación, cooperación al desarrollo, cuidado, salud, asistencial, etc.

3. **<u>Hay brecha de género por relevancia económica y por tamaño del gasto de la entidad</u>**: a mayor poder económico, menor presencia de mujeres.

   - ✓ Las mujeres tienen menor presencia en las entidades económicamente grandes.
   - ✓ Las mujeres tienen mayor presencia en las entidades micros y pequeñas.

**DESIGUALDAD POR FINALIDAD DE LA ENTIDAD**

Ente las 544 entidades analizadas, se constata que hay una importante brecha de género en las entidades en función del rol de género. Entre ellas, destacan, por ejemplo, la sobrerrepresentación masculina en las fundaciones bancarias (73% hombres), deportivas (74%) o de investigación (74%). En cambio, las mujeres tienen más presencia en las entidades dedicadas, por ejemplo, a personas con discapacidades (57% mujeres) o en las denominadas benéfico asistenciales (46%).

**ASOCIACIONES**

| **Distribución por sexo de órganos de gobierno de <u>asociaciones de utilidad pública</u> analizadas, según finalidad Absolutos, % y brecha de género** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Categoría** | **Total** | **Hombres** | | **Mujeres** | | **Brecha de género** |
| | | **(Abs.)** | **(%)** | **(Abs.)** | **(%)** | **(%)** |
| **Personas afectadas enfermedades/ discapacidades** | **509** | **220** | **43%** | **289** | **57%** | **14%** |
| **Benéfico-asistenciales y laborales** | **432** | **234** | **54%** | **198** | **46%** | **-8%** |
| **Casas regionales** | **179** | **140** | **78%** | **39** | **22%** | **-56%** |
| **Culturales, juveniles y deportivas** | **219** | **145** | **66%** | **74** | **34%** | **-32%** |
| **Otras** | **190** | **130** | **68%** | **60** | **32%** | **-37%** |
| **TOTAL** | **1.529** | **869** | **57%** | **660** | **43%** | **-14%** |

**FUNDACIONES**

| **Distribución por sexo de órganos de gobierno de <u>fundaciones de utilidad pública</u> analizadas, según finalidad Absolutos, % y brecha de género** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Sección** | **Total** | **Hombres** | | **Mujeres** | | **Brecha de género** |
| | | **(Abs.)** | **(%)** | **(Abs.)** | **(%)** | |
| **Docentes y dedicadas a la investigación** | **997** | **742** | **74%** | **255** | **26%** | **-48** |
| **Benéfico-asistenciales y laborales** | **858** | **558** | **65%** | **300** | **35%** | **-30** |
| **Culturales, juveniles y deportivas** | **736** | **542** | **74%** | **194** | **26%** | **-47** |
| **Bancaria** | **40** | **29** | **73%** | **11** | **27%** | **-46** |
| **Restantes** | **369** | **269** | **73%** | **100** | **27%** | **-46** |
| **TOTAL** | **3.000** | **2.140** | **71%** | **860** | **29%** | **-42** |

## DESIGUALDAD POR RELEVANCIA ECONÓMICA DE LA ENTIDAD

Entre las 544 entidades analizadas, se constata que la brecha de género aumenta en la medida en que la entidad es más relevantes económicamente. En las que se consideran relevantes, solo hay presencia femenina entre el 28% y 38%.

### ASOCIACIONES

| Distribución por sexo de las juntas directivas de las asociaciones analizadas, según relevancia económica Absolutos y % brecha de género | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Relevancia | Total | Hombres | | Mujeres | | Brecha género |
| | | (Abs.) | (%) | (Abs.) | (%) | |
| Relevante económicamente | 465 (31%) | 290 | 62% | 175 | 38% | -25% |
| No Relevante | 1064 (69%) | 579 | 54% | 485 | 46% | -9% |
| TOTAL | 1.529 | 869 | 57% | 660 | 43% | -14% |

### FUNDACIONES

| Distribución por sexo de los patronatos de fundaciones analizadas, según relevancia económica. Absolutos, % y brecha de género | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Relevancia | Total | Hombres | | Mujeres | | Brecha de género |
| | | (Abs.) | (%) | (Abs.) | (%) | |
| Relevante económicamente | 1.440 | 1.042 | 72% | 398 | 28% | -44 |
| No Relevante | 1.548 | 1.089 | 70% | 459 | 30% | -40 |
| TOTAL | 2.988 | 2.131 | 71% | 857 | 29% | -42 |

## DESIGUALDAD POR TAMAÑO DEL GASTO DE LA ENTIDAD

Entre las 544 entidades analizadas, se constata que la diferencia de género es importante, también, si atendemos al tamaño del gasto de las entidades. Hay mayor presencia de mujeres en las micro, pequeñas y medianas, y más presencia de hombres en las consideradas grandes y muy grandes. La brecha de género va en aumento, progresivamente, en la medida que aumenta el gasto de la entidad.

### ASOCIACIONES

| Distribución por sexo de las juntas directivas de las asociaciones de utilidad pública analizadas, según tamaño de la entidad Absolutos y % | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Tamaño | Total | Hombres | | Mujeres | | Brecha género |
| | | (Abs.) | (%) | (Abs.) | (%) | |
| Micro | 759 | 414 | 55% | 345 | 45% | 9% |
| Pequeñas | 317 | 172 | 54% | 145 | 46% | 9% |
| Medianas | 345 | 224 | 65% | 121 | 35% | 30% |
| Grandes | 94 | 52 | 55% | 42 | 45% | 11% |
| Muy grandes | 14 | 7 | 50% | 7 | 50% | 0% |
| TOTAL | 1.529 | 869 | 57% | 660 | 43% | 14% |

## FUNDACIONES

| Distribución por sexo de los patronatos de las fundaciones analizadas, según tamaño de la entidad<br>Absolutos, % y brecha de género | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Tamaño | Total | Hombres | | Mujeres | | Brecha de género |
| | | (Abs.) | (%) | (Abs.) | (%) | |
| **Micro** | **1146** | **801** | **70%** | **345** | **30%** | **-40** |
| **Pequeñas** | **459** | **311** | **68%** | **148** | **32%** | **-36** |
| **Medianas** | **840** | **599** | **71%** | **241** | **29%** | **-42** |
| **Grandes** | **426** | **325** | **76%** | **101** | **24%** | **-52** |
| **Muy grandes** | **129** | **104** | **81%** | **25** | **19%** | **-62** |
| **TOTAL** | **3.000** | **2.140** | **71%** | **860** | **29%** | **-42** |

## TRES PRESTIGIOSAS PONENTES

- ✓ **Eva Ferreira**: Catedrática de Economía Aplicada de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales de la UPV/EHU. Ha sido Vicerrectora de Organización Académica en dicha Universidad en el periodo 2004-2008, así com Secretaria General de la misma en el periodo 2009-2013. En la actualidad es Directora de Unibasq, la Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco.

- ✓ **Cristina Escribano**: Profesora Titular de Derecho Mercantil de la Facultad de Ciencias Jurídicas y Sociales de Toledo (Universidad de Castilla la Mancha- UCLM). Es Doctora en Derecho, por la Universidad Complutense de Madrid, y Presidenta de la *Comisión Mujer y Ciencia* de dicha Facultad.

- ✓ **Elena Leiñena**: Profesora de Derecho Mercantil de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Es Licenciada en Ciencias Económicas y Empresariales por la UPV/EHU, Licenciada en Derecho por la UPV/EHU, y Doctora por la Universitat de Barcelona

***(*) Capítulo VI del informe 2015 de auditoría a las cuentas presentadas por las asociaciones de utilidad pública y fundaciones en el ejercicio 2014***